

Giro goxoko ospakizuna

KAFE ANTZOKIAREN 5. URTEMUGA. Kulturaren munduko pertsonaia ezagunek hartu zuten parte atzo gauean egin zen ekitaldi jendetsuan



JOSU ETXEBARRIOSTE

Kafe Antzokia bete-betea egon zen atzoko jaialdian.

Juan Luis Zabala | **BILBO**

Jende ugari bildu zuen Kafe Antzokiak atzo bere bosgarren urteurrena ospatzeko antolatutako jaiak. Fermin Mguruza, Carlos Mahoma, Francis Diez, Anje Duhalde, Juan Carlos Perez, Ander Lipus, Asisko Urmeneta, Andoni Egaña, Jon Sarasua, Jon Enbeita, Koldo Ameztoi, Basilio Pujana, Juan Antonio Urbeltz, Mikel Urbeltz, Marian Arregi eta Tere Irastortza izan ziren partaide, besteak beste, jailadian. Jende ospetsu gehiago ere bazen gonbidaturik eta joateko prst, baina azken orduko konpromisoengatik ezinezkoa egin zitzairen batzuei atzo bilbora joatea.

Ekitaldia Zenbat Gara elkar-teari buruzko 8 minutuko bideo emanaldi batekin hasi zen, eta ondoren, Mikel Urbeltz eta Iñaki Urruzola musikariak lagun harturik, kantu batzuk eman zuten oholtza gainetik hainbat kantari anonimok. Luntxa egin zen ostean, eta luntxaren ondoren igo ziren gauek izar nagusiak taula gainera.

Lehen ekitaldian, Fermin Muguruza, RIPEko Carlos Mahoma eta Doctor Deseoko Francis Diez aritu ziren. *Lepoan hartu eta segi aurrera* kanta ezaguna eta Xabier Leteren *Ni naiz* eman zituzten, harmonia ederrean.

Ondoren, Ander Lipus aktoreak okasiorako sortutako bost miunutu inguruko monologoa

eman zuen, aski bizi eta probokatzaileria.

Asisko Urmeneta nafar komikilariak eta Jon Enbeita bizkaitar bertsolariak osatu zuten, elkarlanean, hurrengo txanda. Enbeitak Otxalde eta Mendia-geren bertsoak kantatu zituen eta Asiskok gaiarekin lotutako marrazkiak egin zituen tarte horretan.

Jon Sarasua jendaurrean berriro

Andoni Egaña eta Jon Sarasuak bat-bateko bertsoak eman zituzten, *Zenbat gara* gaitzat harturik. Gaisoaldi baten ondoren jendaurreko berragerpena izan zuen atzo Jon Sarasuak. Eztarria guztiz osaturik ez duenez, bertsoak kantatu barik errezitatu egin zituen. Ilusioa zuen, berragerpena egiteko oso leku aproposa iruditzen baitzitzaion Kafe Antzokia, oso maitea duen lekua, dudarik gabe.

Anje Duhalde bi kantu eman zituen, eta Koldo Ameztoi Axularren ipuin batzuk kontatu zituen, egokitu eta gaurkoturik, aurrean zuen publikoaren gozagarri.

Juan Carlos Perez eta Tere Irastortza elkarrekin izan ziren taula gainea. Juan Carlos Perezen emandako kanten arteko tartean, Tere Irastortzak poemak irakurri zituen. Bilborekin lotutako poemak irakurri zituen Goieritik heldutako poetak.

Azkeneko ekitaldian, Marian Arregi soinu joleak eta Mikel Urbeltz arrabita joleak *Soka*



JOSU ETXEBARRIOSTE

Jendeak ondo pasatzeko aukera izan zuen atzo Kafe Antzokian.

dantza jo zuten. Juan Antonio Urbeltz hura dantzatzaren hasi zen, eta haren ondorekin aurretik taula gainea izandakoetako batzuk. Gero, poliki-poliki, jende guztia lotu zitzaion dantzari.

Soka ez da eten leloa aukeratu zuen Kafe Antzokiak bere bosgarren urteurreneko ospakizunarentzat. «Garai bateko *Katea ez da eten* hura gogoan izanik, sokaren irudia erabiltzea nahiago izan dugu», azaldu zion atzo EGUNKARIA-ri Jose Angel Irigarai Kafe Antzokiko koordinatzaileak. «Lagunarte

giroa da gurea, soka berekoak gara denok azken batean, eta elkarrekin soka dantzan aritzea maite dugu». Kafe Antzokia, «itzalñoa ematen hasia dagoen zuhaitza» da, Irigarairen ustez. Bost urte hauetan zehar sendotu eta finkatu egin da, eta egindako bidea pozik egoteko modukoa da. Atzoko jai giroa goxoa egindako lanaren ordain gisa hartu zuten Kafe Antzokiko arduradunek, baina aurreantzean ere lanari gogor lotu beharra izango dela ahaztu bari.

ANTZERKIA

Jesus Guridiren 'Baserria' lehen aldiz euskaraz emango dute gaur Azpeitian

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Jesus Guridiren *El caserio* zartzuela ezagunaren euskarazko bertsioa estreinatuko dute gaur, 21:30etan, Azpeitiko Zelaitxo aretoan, Azpeitiko Musika Bandak, Aretxabaletako Abesbatzak, Julian Barrenetxea abesbatzak eta Itsasi dantza taldeak, Inaxio Tolosaren zuzendaritzapean. Azpeitiko Antzerki Topaketen egitarauaren barruan sartzen da gaurko estreinaldia.

Bakarleri moduan Mariatxen Urkia sopranoa, Mari Carmen Etxeandia mezzoa, Entzi Zubiri eta Alfredo Cortes tenoreak eta Jose J. Etxeberria baritonoa ariko dira. Aretxabaletako Abesbatza Angel Barandiaranek zuzenduko du. Musika moldaketaz eta zuzendaritzaz Jose Luis Frantzesena arduratuko da. Frantzesena arduratuko da libretorearen euskarazko modapenez ere. Argien ardura Sarobe Arte Eszenikoen Gunearena izango da, eta ekoizpenaren ardura Azpeitiko Udalarena izan da.

Gurudiren *El caserio* zartzelak Arrigorri izeneko alegiazko herrian gertatutako amodio istorio bat kontatzen du: baserriaren etorkizuna ziurtaturik ikusi nahirik, berak jasotako iloba umezurtzak –Jose Migel eta Ana Mari– elkarrekin ezkontzea nahi du Santi indiano zaharrak, baina hainbat zailtasun eta oztopo ditu horretarako. Izan ere, Jose Migel eta Ana Mari ez dira oso antzekoak. Ana Mari urrea baino finagoa da, Jose Migel, aitizitik, alproja samarra.

Iaz gaztelaniaz eman zuten *El caserio* Azpeitiko eta Aretxabaletako abesbatzek. 90 abeslari, musikari eta dantzari hartu zuten parte emanaldi hartan.

Beste emanaldi bat ere izango da gaur Azpeitiko Antzerki Topaketen barruan: Trapu Zaharra taldeak *Paquetito* kale-antzezlan emango du, 12:30etan, Azpeitiko enparantza nagusian.